BILBOKO UDALA AYUNTAMIENTO DE BILBAO | Prentsa Kabinetea Gabinete de Prensa | Erkoreka Plaza, 1 48007 Bilbao
Tel. 94 420 52 61 / 94 420 52 94 / 94 420 35 19 / 94 420 59 93 / 94 420 30 93 | Fax: 94 420 52 16 | prensa@alcaldia.bilbao.eus | www.bilbao.eus

# MUSIKA-MUSIKA JAIALDIAK 600 MUSIKA IKASLE BILDUKO DITU EUSKALDUNAKO 'KIOSKO' GUNEAN ETA KANTAMUNDI PROGRAMAREN BIGARREN EDIZIOAN

- **Jaialdiak, martxoaren 3tik 5era, 70 kontzertu baino gehiago bilduko ditu hiru egunetan, Euskalduna Jauregiko hainbat gunetan aldi berean eta, gainera, 4 familia-saio izango ditu, larunbatean eta igandean.**
- **Maratoi formatuak 70 kontzertu baino gehiago eskainiko ditu, askotariko generoak azalduta; esate baterako ganbera-musika, Budapesteko ganbera-orkestra, Ensemble Masques, Anima musicae orquestra edo Gerhard, Signum edo Manderling laukoteen kontzertuekin, besteak beste.**
- **“Notak & Letrak” izenburupean, Garai eta estilo artistiko desberdinetako konpositore eta idazleen arteko elkarrizketa aztertuko du programak. Literatura arloan, Byron, Virgilio, Goethe, Ibsen, Ovidio, Cervantes, Shakespeare edo Tostoiren lanak nabarmenduko dira, eta, musikalean, Beethoven, Liszt, Chaikovski, Purcell, Schubert, Schumann, Bizet, Strauss edo Maraisen inspirazioa, besteak beste.**

*(Bilbao, 2023ko otsailaren 22a).-* Bilboko Udalak antolatutako MUSIKA-MÚSICA Jaialdiak kontserbatorioetako eta musika-irakaskuntzako zentroetako 600 ikasle bilduko ditu martxoaren 3an, 4an eta 5ean egingo den 22. edizioan, “Notak & Letrak” izenburupeanizan ere, musika inspiratzen duen literaturan eta literaturan inspiratzen den musikari eskainiko zaio.

Euskalduna Jauregiko 'Kiosko' guneak interprete gazteen emanaldiak hartuko ditu martxoaren 4an, larunbata, eta 5ean, igandea, Bilboko 'Juan Crisostomo de Arriaga' Kontserbatorioko ikasleak, Segovia, Durango, Valentzia, A Coruña, Avila, Burgos, Getxo eta Barakaldoko kontserbatorio eta musika eskoletako ikasleak eta EHU Orkestra Sinfonikoa izango dira.

Gune honek ‘Kantamundi’ programaren bigarren edizioa ere hartuko du, martxoaren 4an, larunbata, arratsaldeko 16:00etan hainbat ikastetxetako haurrek parte hartuko duten kontzertuarekin. Euren ahotsak Bilboko Koral Elkarteko haur abesbatzaren ahotsekin batuko dituzte, abesbatza sare bat sortzeko eta ikasleen gaitasun kognitiboak, afektiboak eta sortzaileak sustatuko dituzten kultura arteko sistemak sortzearen aldeko apustua egiteko helburuarekin.

Kioskoan sartzeko sarrerak salgai daude dagoeneko, 4 euroren truke.

Horrela, interprete gazteek aukera izango dute hiru egunetan 70 kontzertu baino gehiagotan jaialdian parte hartuko duten 800 profesional baino gehiagorekin espazioak partekatzeko, aldi berean Euskalduna Jauregian.

**FAMILIA-SAIOAK**

Jaialdiaren egitarauak, publiko orori zuzendutako proposamenekin eta 45 minutuko formatuko emanaldiekin, familientzako kontzertu bereziak ere izango ditu.

Larunbatean, martxoak 4, 11:30ean, eta igandean, martxoak 5, 12:30ean, La Canica Teatrok ‘Orfeo’ ikuskizuna Euskalduna Jauregiko 0C Aretora eramango du. Orfeo eta Eurídiceren mitoaren antzezpena da, txotxongiloekin.

Gainera, igandean, martxoak 5, 11:00etan eta 16:00etan, Títeres Etcétera konpainiak Sergei Profokieven 'Pedro y el lobo' txotxongilo eta musika ikuskizuna eskainiko du 0E aretoan.

**MARATOIA 70 KONTZERTURKIN**

Interprete gazteen eta publiko familiarrarentzako proposamenak izango dira, besteak beste, martxoaren 3tik 5era, “Notak & Letrak” izenburupean, Jaialdiaren 22. edizioa zeharkatuko duten musikaren eta literaturaren arteko elkarrizketa desberdinetako batzuk, Beethoven, Liszt, Chaikovski, Purcell, Schubert, Schumann, Bizet, Strauss edo Marais bezalako konpositoreen eta Byron, Virgilio, Goethe, Ibsen, Ovidio, Cervantes, Shakespeare edo Tolstoi bezalako literaturagileen lanen bitartez.

Horrela, musika berriro entzungo da Bilbon, ohiko maratoi formatuan, hiru egunetan 70 kontzertu baino gehiago eskainiz. Euskalduna Jauregiak, bestalde, programazio honen zatirik handiena hartuko du, 45 minutuko emanaldiekin. Emanaldiak areto ezberdinetan izango dira aldi berean. Horrela, publikoak genero desberdinen interpretazioen katalogo zabala izango du, hala nola ganbera-musika, Budapesteko ganbera-orkestraren, Ensemble Masquesen, Anima Musicae orkestraren eta Gerhard, Signum edo Manderling laukoteen emanaldiekin, besteak beste.

Auditorioan kontzertu sinfonikoak bilduko dira, **Bilbao Orkestra Sinfonikoa, Euskadiko Orkestra, Nafarroako Orkestra Sinfonikoa, Bilboko Koral Elkartea, Galiziako Orkestra Sinfonikoa, Gaztela eta Leongo Orkestra Sinfonikoa eta Granadako Orkestra Sinfonikoa** bezalako orkestra handien eskutik.

Ganbera-musika edo ibilbide nabarmeneko artisten errezitaldiak, aldi berean, **Euskaldunako** hainbat aretotan entzungo dira. Areto horietan interprete gazteak ere izango dira, **‘Kiosko’** izeneko gunean.

**SARREREN SALMENTA**

Sarreren samenta eskuragarri dago jada:

- Euskalduna Jauregiko leihatilan: astelehenetik larunbatera, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.
- www.euskaduna.eus webgunean.

- Jaialdiaren egoitzan, 'La Perrera' eraikinean (Sabino Arana, 50): astelehenetik ostiralera, 12:00etatik 17:00etara, martxoak 2ra arte (ordainketa txartelarekin bakarrik).
- Irekiera-kontzerturako sarrerak Arriaga Antzokiko lehiatilan ere eskuratu daitezke: astelehen, astearte, larunbat eta igandetan 11:30etik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara, eta asteazken, ostegun eta ostiraletan 11:30etik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.
- Kutxabankeko kutxazainetan.
- Taldentzako salmenta esklusiboa (50 sarreratik gorako erosketak): 94 403 51 80 telefonora deituta edo groups.euskalduna@gmail.com helbidera idatzita.

Sarreren prezioak:
- Arriaga Antzokia eta Euskalduna Jauregiko Auditorioa: 13 euro.
- 0B Gela: 11 euro.
- Gainntzeko gelak: 8 euro.
- Kioskorako sarrera bakarrik: 4 euro.

**SARE SOZIALAK:**

- **BILBAO UDALA:** YOUTUBE | FACEBOOK | TWITTER | INSTAGRAM
- **BILBAO KULTURA:** YOUTUBE | FACEBOOK | TWITTER | INSTAGRAM
- **MUSIKA MUSICA:** FACEBOOK | TWITTER | INSTAGRAM

**Informazio gehiago:** https://musika-musica.bilbao.eus/

# EL FESTIVAL MUSIKA-MÚSICA REUNIRÁ A 600 ESTUDIANTES DE MÚSICA EN EL 'KIOSCO' DEL EUSKALDUNA Y LA SEGUNDA EDICIÓN DEL PROGRAMA KANTAMUNDI

- **El Festival, que entre el 3 y el 5 de marzo reunirá más de 70 conciertos en tres días, en diferentes espacios de forma simultánea en el Palacio Euskalduna, incluye además 4 sesiones familiares, el sábado y el domingo.**
- **El formato de maratón, con más de 70 conciertos, ofrecerá al público una variada oferta con géneros como la música de cámara; con las actuaciones de la orquesta de cámara de Budapest, el Ensemble Masques, la orquesta Anima musicae o los cuartetos Gerhard, Signum o Manderling, entre otros.**
- **Bajo el título "Notak & Letrak" el programa explorará el diálogo entre compositores y escritores de diversas épocas y estilos artísticos. En la categoría literaria brillarán las obras de Byron, Virgilio, Goethe, Ibsen, Ovidio, Cervantes, Shakespeare o Tolstoi y en la musical, la inspiración de Beethoven, Liszt, Chaikovski, Purcell, Schubert, Schumann, Bizet, Strauss o Marais, entre otros muchos.**

*(Bilbao, a 22 de febrero de 2023).-* El Festival MUSIKA-MÚSICA, organizado por el Ayuntamiento de Bilbao, **reunirá a 600 estudiantes de música de conservatorios y centros de enseñanza musical en su 22ª edición**, que se celebrará el 3, 4 y 5 de marzo, con el título "Notak & Letrak" y dedicada a la música que se inspira en la literatura y la literatura que se inspira en la música.

El **espacio "Kiosko" del Palacio Euskalduna** acogerá el sábado 4 y el domingo 5 de marzo estas actuaciones de jóvenes intérpretes, que contarán con alumnado del Conservatorio "Juan Crisóstomo de Arriaga" de Bilbao, de **conservatorios y escuelas de música de Segovia, Durango, Valencia, A Coruña, Ávila, Burgos, Getxo y Barakaldo**, y con la **EHU Orkestra Sinfonikoa**.

Este espacio acogerá también la segunda edición del **programa "Kantamundi", con un concierto el sábado 4 de marzo a las 16:00 horas en el que participarán niñas y niños de varios centro**s. Unirán sus voces a las del coro infantil de la Sociedad Coral de Bilbao, que impulsa esta iniciativa con el objetivo de crear una red de coros y apostar por la creación de sistemas interculturales que fomenten las capacidades cognitivas, afectivas y creativas del alumnado.

Las entradas para acceder al 'Kiosko', a un precio de 4 euros, están ya a la venta.

Las y los jóvenes intérpretes tendrán así la ocasión de compartir espacios con los más de 800 profesionales que participarán en el festival a lo largo de los más de 70 conciertos en tres días, en diferentes espacios de forma simultánea en el Palacio Euskalduna.

## SESIONES FAMILIARES

El programa del Festival, con propuestas dirigidas a todo tipo de públicos, con actuaciones en formato de unos 45 minutos, contará también con conciertos especiales para el público familiar.

El sábado día 4, a las 11:30 horas, y el domingo día 5, a las 12:30 horas, La Canica Teatro llevará a la Sala 0C del Palacio Euskalduna el espectáculo 'Orfeo', una escenificación del mito de Orfeo y Eurídice con títeres.

Además, el domingo día 5, a las 11:00 horas y a las 16:00 horas, la compañía Títeres Etcétera ofrecerá, en la Sala 0E, un espectáculo de títeres y música con la obra 'Pedro y el lobo' de Sergei Profokiev.

## MARATÓN CON 70 CONCIERTOS

Las propuestas de jóvenes intérpretes y para público familiar serán algunos de los distintos diálogos entre música y literatura que, del 3 al 5 de marzo, con el título de 'Notak & Letrak', recorrerán la 22ª edición del Festival a través de las obras de compositores como Beethoven, Liszt, Chaikovski, Purcell, Schubert, Schumann, Bizet, Strauss o Marais entre otros, y las de literatos como Byron, Virgilio, Goethe, Ibsen, Ovidio, Cervantes, Shakespeare o Tolstoi.

Con ello, la música volverá a sonar en Bilbao, en el habitual formato de maratón, con más de 70 conciertos en tres días. El Palacio Euskalduna, por su parte, acogerá el grueso de esta programación, con actuaciones de unos **45 minutos** cada una, que tendrán lugar en diferentes salas de forma simultánea. De esta manera, el público podrá disfrutar de un amplio catálogo de interpretaciones de géneros, como la música de cámara; con las actuaciones de la orquesta de cámara de Budapest, el Ensemble Masques, la orquesta Anima Musicae o los cuartetos Gerhard, Signum o Manderling.

El Auditorio concentrará los conciertos sinfónicos, a cargo de grandes orquestas como la **Bilbao Orkestra Sinfonikoa**, **Euskadiko Orkestra**, la **Orquesta Sinfónica de Navarra**, **la Sociedad Coral de Bilbao**, la **Orquesta Sinfónica de Galicia**, la **Orquesta Sinfónica de Castilla y León** y la **Orquesta Sinfónica de Granada**.

La música de cámara o los recitales de artistas de trayectoria sonarán, a su vez, en distintas salas del Euskalduna, que acogerá también a **jóvenes intérpretes** en el espacio denominado **"Kiosko".**

## VENTA DE ENTRADAS

La venta de entradas está ya disponible:

- En las taquillas del Palacio Euskalduna: de lunes a sábado, de 12:00 a 14:00 horas y de 17:00 a 20:00 horas.

- En la página www.euskalduna.eus
- En la sede del Festival, en el edificio ‘La Perrera’ (Sabino Arana, 50): de lunes a viernes, de 12:00 a 17:00 horas, hasta el 2 de marzo (pago solo con tarjeta).
- Las entradas para el concierto de apertura también podrán adquirirse en la taquilla del Teatro Arriaga: lunes, martes, sábados y domingo, de 11:30-14:00 horas y de 17:00 a 19:00 horas, y miércoles, jueves y viernes, de 11:30 a 14:00 horas y de 17:00 a 19:00 horas.
- En cajeros multiservicio Kutxabank
- Venta exclusiva para grupos (compras superiores a 50 entradas): a través del teléfono 94 403 51 80, groups.euskalduna@gmail.com

Los precios de las entradas serán:

- Teatro Arriaga y Auditorio del Palacio Euskalduna: 13 euros
- Sala 0B: 11 euros
- Resto de salas: 8 euros.
- Para acceso exclusivamente al “Kiosko”: 4 euros.

**REDES SOCIALES:**

- **BILBAO UDALA:** YOUTUBE | FACEBOOK | TWITTER | INSTAGRAM
- **BILBAO KULTURA:** YOUTUBE | FACEBOOK | TWITTER | INSTAGRAM
- **MUSIKA MUSICA:** FACEBOOK | TWITTER | INSTAGRAM

**Más información:** https://musika-musica.bilbao.eus/